



SAJOA MARITORENA

AZALAREN LEHIAKETAN PARTE HARTU DUTEN KARTELAK



"PESTA ETA JATORTASUNA"

**AXE
ASTITZ ALKOTZ**



"ARMARIE"

**JON
ARRIZURIETA TELLETXEA**



"ANIZTASUN PESTAK"

**AITOR
ZABALETA ALDUNTZIN**



"ALAITASUNA PESTETANI!!"

**AXE
ASTITZ ALKOTZ**

Eskerrak eman parte hartu duzuen guztiei eta **ZORIONAK**
SAIOA MARITORENA ETXEBERRIA, "ELKARREKIN" kartelarekin irabazi duenari.

ALKATEAREN AGURRA

Kaixo, herritarrok:

Pestak bertan ditugula, ospatzeko, gozatzeko eta disfrutatzeko prestatzen dugu geure burua. Egia esan behar bada, horren beharra ere badaukagu. Lehendik ere garai ilun askoak ezagutu baditugu ere, azken aldian, gerra hotsak direla eta ez direla, giro itogarri samarra nozitzea egokitu zaigu. Munduan badira bestela ere hamaika gatazka gordin eta hilgarri, baina ezin aipatu gabe utzi Palestinarekin gertatzen ari dena. 2024ko ezpatadantzan gogoratu nahi izan genuen jasaten ari diren genozidioa, eta sarraskiak bere horretan jarraitzen duenez, orain ere haiekiko elkartasuna ekarri nahiko genuke lerro hauetara, eta horren bitartez baita gerren ondorioak sufritzen ari diren herri eta norbanako guztiekiko elkartasuna ere.

Giro eta gertakizun gordin horien testuinguruan etorri zaizkigu Leitzako pestak, beraz, eta beste batzuetan egin izan dugun moduan, oraingoan ere pestaren eta gozamenaren aldarrikapena egin nahiko genuke. Herriko pestak ez direlako ekitaldi bilduma hutsa, edo jarraitu beharreko egitarau zurrin bat. Hori baino askoz gehiago dira, eta gauza askotarako balio dute: gozatzeko eta ongi pasatzeko, noski, arnasa hartzeko, baina baita harreman sareak trinkotzeko ere, herria kohesionatzeko, kultura sustatzeko, herria egiten jarraitzeko azken batean.

Eta, esan bezala, pestak ekitaldi multzoa baino gehiago ere badirenez, ezinbestekoak diren eta zehar lerro gisa lantzen ditugun alderdiak ere pestetako eguneroko martxan txertatu eta errotu nahiko genituzke: euskara, ingurumena, eta elkartasuna, besteak beste.

Arnasgunea da Leitzak euskararentzat, eta hala izan beharko luke pestetan ere; berdintasunak ere blaitu beharko lituzke egun hauek, eta pilota jaialdi mistoak antolatuz azken urteotan aurrerapausoak ematen ari garen bezala, pestetako beste alderdi batzuetan ere berdintasunean aurrera egiten jarraitu beharko dugu, oraindik bide luzea baitugu; eta berdin ingurumenari dagokionez, esate baterako jai egun hauetan sortzen diren hondakinen kudeaketa gero eta txukunagoa eginez.

Goza ditzagun pestak, beraz, izan daitezela denontzat merezitako arnasaldia eta disfrutatzeko aldia, eta izan daitezela, bide batez, urte osoan zehar herri bizigarri eta alai bat eraikitzen lagunduko digun erregaia. Denok egiten dugu Leitzak!

Dabid Anaut Peña
LEITZAKO ALKATEA



Leitzako Udala

abuztuak 2

larunbata

REPARTO EGUNA

- 14:00 Eskelarien bazkaria
Aurrera Elkartean.
- 16:00 Auzoz auzo,
programa-banaketa:
trikitilarien,
txistularien,
akordeoilarien
eta dultzaineroen
laguntzaz.
- 17:00 Plazako
pilota-txapelketako
3. eta 4. postuak eta
final handia.




abuztuak 3 igandea

UMEEN EGUNA

- 09:00 Diana txistulariekin.
- 10:00 Korporazio txikiaren gosaria, udal ordezkariekin.
- 10:30 TXUPINAZOA.
- Ondoren Gurpildun zezenen entzierroa.
- 11:00 Aurrera Pilota-Eskolako txikiak, plazan.
- 11:30 Denok Bat guraso elkarteak antolatutako "Herri kirol" jolasak, plazan.
- 17:00 Leitzako Konpartsa plazatik abiatuko da.
- 18:30 Aurrerako dantzari txikien emanaldia eta, ondoren, umeen ingurutxo IREKIA, plazan.
- Ondoren Goxokiak banatuko dira.
- 20:30 Dj XAIBOR.
- Ondoren Suzko zezena.





abuztuak 9 larunbata

PESTA BEZPERAREN BEZPERA

17:30 Gazteen joko-erronkak.

21:00 Dj gaua beheko txoznan:
Adrian Perez, Aimar Oskariz eta Zaze.

23:00 BURUTIK, plazan.

Ondoren Dj Trio de Janeiro, plazako txoznan.

23:00 Tekno gaua Ateakabeltzen:
Dj Bitter Ama, Dj Balza eta Dj Iker Allo.





abuztuak 10 igandea

PESTA BEZPERA

13:00 "Etxera" kalejira musikatua.

14:30 Kantu bazkari herrikoia, Karrapen.

18:00 TXUPINAZOA.

Programa-azalen irabazleei saria,
KXK Beltza eta Udalaren eskutik.

Ondoren Leitzako Konparsak dultzaineroekin, Incansables txarangak eta Txistulariek, kalejira egingen dute.

18:30 La Jodedera, Labetxeko atarian.

19:00 Mejikortxo, beheko txoznan.

22:00 Suzko zezena.

23:00 ITZAL erromeria-taldea.

Ondoren Incansables txarangaren gaueko erronda.

Ondoren Dj-a, plazako txoznan.

23:00 PalmeraS Negras, Maskak eta Dj Primikass, Atekabeltzen.

00:00 Dj Jo ta Txo, beheko txoznan.



abuztuak 11 astelehena

TIBURTZIO DONEAREN EGUNA

- 08:00 Diana, txistulariekin.
- 09:00 Entzierroa eta behiak, plazan.
- 10:30 Meza, Elizak antolatuta.
- 11:00 Hamaiketako irekia, Karrapen.
- 12:00 Aurrera dantza-taldearen EZPATA-DANTZA, plazan.
- 13:00 Incansables txarangaren erronda.
- 17:00 Zezenak, plazan.
- 17:00 Neguko Izarrak jazz kontzertua. Labetxeko atarian.
Bateria: Peru Altube / Baxua: Jokin Barriola /
Gitarra: Jose García / Pianoa: Jon Gómez /
Saxofoia: Peio Martínez / Tronpeta: Aimar Palacios /
Ahotsa: Malentxo Zeberio
- 19:00 Herri kirolak, plazan: Aizkoran Vicente, Ezpeleta,
Larrañaga, Txikia eta Malen Barrenetxea.
- Ondoren Goxokiak banatuko dira.
- 19:30 Incansables txaranga eta buruhandiak
aterako dira.
- 22:00 Suzko zezena.
- 23:00 PURO RELAJO, plazan.
- Ondoren Incansables txarangaren gaueko erronda.



abuztuak 12 asteartea

PESTA BIGARRENA



08:00 Diana, txistulariekin.

09:00 Entzierroa eta behiak, plazan.

10:30 Aparra, plazan.

11:30 Aurrera pilota eskolako festa, Amazabal pilotalekuan:
M.Martinez-A.Zubillaga VS J.Baleztena-O.Alkorta
G.Zabaleta VS M.Arrillaga
J.Sagastibeltza-B.Santamaria VS H.Txoperena-E.Goikoetxea

13:00 Paella-jana, Karrapen, eta Incansables txarangaren erronda.

17:00 Zezenak, plazan.

19:00 Aurrera dantza-taldearen emanaldia, plazan.

Ondoren Goxokiak banatuko dira

Bertso-poteoa, Aurreratik abiatuta.

Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira.

22:00 Suzko zezena.

23:00 JANUS LESTER.

Ondoren Incansables txarangaren gaueko erronda.

Ondoren Dj-a, plazako txoznan.

23:00 Punk gaua, Atekabeltzen: Perlara, Zetkin eta Dj Haizeta.

00:00 Dj Zigix eta Zaze, beheko txoznan.

03:00 Gaueko Ingurutxo irekia, plazan.



abuztuak 13 asteazkena

PESTA HIRUGARRENA

08:00 Diana, txistulariekin.

09:00 Entzierroa eta behiak, plazan.

11:00 Leitzako Konpartsa plazatik abiatu eta herrian zehar ibiliko da.

Ondoren Goxokiak banatuko dira.

13:00 Txakoli dastaketa eta Incansables txarangaren emanaldia, Karrapen.

16:00 Zezenak, plazan.

17:00 Bertsolariak, plazan:

Maialen Lujanbio, Jon Maia, Eki Mateorena, Maddi Txoperena eta Unai Agirre.

Ondoren Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira.

18:30 Pilota-jaialdi profesionala, Amazabal pilotalekuan:
Udara Caixabank-eko partidua, Ados-en eskutik
Artola-Imaz VS Agirre-Mariezkurrena

21:30 Suzko zezena.

22:00 Herri-afaria.

Ondoren Incansables txarangaren
gaueko erronda.

00:00 Euskal Rock Erradikalaren gaia,
beheko txoznan.



abuztuak 14 osteguna

PESTA LAUGARRENA

- | | | | |
|-------|--|---------|--|
| 08:00 | Diana, txistulariekin. | Ondoren | Dj Zaze, herrian zehar. |
| 09:00 | Entzierroa eta behiak, plazan. | 20:00 | Goxokiak banatuko dira. |
| 11:00 | Ur-txirrista, Errekaldeneko atarian. | Ondoren | Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira. |
| 13:00 | Incansables txarangaren erronda. | 22:00 | Suzko zezena. |
| 14:00 | Gazte-bazkaria, Karrapen. | 23:30 | LOS ZOPILOTES TXIRRIAOS. |
| 16:00 | Ur-txirrista, Errekaldeneko atarian. | Ondoren | Incansables txarangaren gaueko erronda. |
| 17:00 | Zezenak, plazan, gazteen jolasekin. | Ondoren | Dj Reimy Atekabeltzen, Danbol eta Obrium, beheko txoznan eta Dj Siwanaba, plazako txoznan. |
| 18:30 | Elektrotxorongo taldea plazatik abiatuko da. | | |



abuztuak 15 ostirala

PESTA BOSTGARRENA



- 08:00 Diana, txistulariekin.
- 09:00 Entzierroa eta behiak, plazan.
- 10:30 Leitzako Konpartsak Markina-Xemeingo Konpartsaren bisita jasoko du, plazan.
- 12:00 Herri Kirolak, plazan:
Harria jasotzen Maddi Gesala eta Goizeder Abendibar Lastoa altxa eta botatzen Jon Lapazaran
- 13:00 Incansables txarangaren erronda.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria.
- 14:30 Aurrerako bazkideen bazkaria, elkartean.
- 17:00 Entzierroa eta zezenak, plazan.
- 19:00 Helduen ingurutxoa, plazan.
- Ondoren goxokiak banatuko dira.
- Ondoren Incansables txaranga eta buruhandiak aterako dira.
- 20:00 GABEZIN erromeri-taldea.
- 22:00 Suzko zezena.
- 23:00 GABEZIN erromeri taldea.
- 00:30 "Pobredemie" Incansables txarangarekin.



PROGRAMACIÓN DE FIESTAS DE **SAN TIBURTZIO**

2 de agosto sábado DÍA DEL REPARTO

- 14:00 Comida para los que salen en el reparto
- 16:00 Reparto del programa por los barrios del pueblo acompañados de música
- 17:00 Partidos de pelota a mano en la plaza. Clasificatoria y final.

3 de agosto domingo DÍA DEL NIÑ@

- 09:00 Diana
- 10:00 Almuerzo
- 10:30 Chupinazo infantil
- Después Encierro con toros de ruedas
- 11:00 Partidos de pelota
- 11:30 Juegos
- 17:00 Comparsa de gigantes
- 18:30 Dantzaris
- Después Reparto de caramelos
- 20:30 Dj Xaibor
- Después Toro de fuego

9 de agosto sábado


- 17:30 Juegos entre cuadrillas
- 21:00 Noche de DJ en la txozna de abajo. Adrian Perez, Aimar Oskariz y Zaze
- 23:00 BURUTIK
- Después Dj Trio de Janeiro en la txozna de la plaza
- 23:00 Noche tekno en el gaztetxe

10 de agosto domingo VÍSPERA de FIESTA

- 13:00 Pasacalles Etxera
- 14:30 Comida popular
- 18:00 TXUPINAZO
- 18:30 La Jodedera
- 19:00 Mejikortxo
- 22:00 Toro de fuego
- 23:00 ITZAL en la plaza
- Después Incansables txaranga
- Después Dj en la txozna de la plaza
- 23:00 Palmeras Negras, Maskak y Dj Primikass en el gaztetxe
- 00:00 Dj Jo ta Txo en la txozna de abajo

11 de agosto lunes SAN TIBURTZIO

- 08:00 Diana
- 09:00 Encierro y vacas
- 10:30 Misa
- 11:00 almuerzo popular
- 12:00 Ezpatadantza
- 13:00 Incansables Txaranga
- 17:00 Vacas
- 17:00 Concierto de Jazz Neguko Izarrak en Labetxe
- 19:00 Deporte Rural
- Después Reparto de caramelos
- 19:30 Incansables txaranga y cabezudos
- 22:00 Toro de fuego
- 23:00 Puro Relajo en la plaza
- Después Incansables txaranga



12 de agosto martes

08:00 Diana
09:00 Encierro y vacas
10:30 Espuma
11:30 Partidos de pelota a mano
13:00 Paellada e Incansables Txaranga
17:00 Vacas
19:00 Dantzaris
Después Reparto de caramelos
Bertso-poteo
Incansables txaranga y cabezudos
22:00 Toro de fuego
23:00 Janus Lester en la plaza
Después Incansables txaranga
23:00 Noche punk en el gaztetxe
00:00 Dj en la txozna de abajo
03:00 Ingurutxo

13 de agosto miércoles

08:00 Diana
09:00 Encierro y vacas
11:00 Comparsa de gigantes
Después Reparto de caramelos
13:00 Degustación de txakoli e Incansables txaranga
16:00 Vacas
17:00 Bertsolaris en la plaza
Después Incansables txaranga y cabezudos
18:30 Partidos de pelota a mano profesionales en el fronton
21:30 Toro de fuego
22:00 Cena popular
Después Incansable txaranga
00:00 Noche RRV en la txozna de abajo

14 de agosto jueves

08:00 Diana
09:00 Encierro y vacas
11:00 Tobogan acuatico
13:00 Incansables Txaranga
14:00 Comida de l@s jovenes
16:00 Tobogan acuatico
17:00 Vacas y juegos
18:30 Elektrotxorongo
Después Dj Zaze
20:00 Reparto de caramelos
Después Incansables txaranga y cabezudos
22:00 Toro de fuego
23:30 Los Zopilotes Txirriaos en la plaza
Después Incansables txaranga
Dj Reimy en el gaztetxe, Dj Siwanaba en la txozna de la plaza y Danbol y Obrium en la txozna de abajo

15 de agosto viernes

08:00 Diana
09:00 Encierro y vacas
10:30 Recibimiento de la comparsa de Markina-Xemein
12:00 Deporte Rural
13:00 Incansables txaranga
14:00 Comida de l@s jubilad@s
14:30 Comida en el Aurrera
17:00 Encierro y vacas
19:00 Ingurutxo
Después Reparto de caramelos
Después Incansables txaranga y cabezudos
20:00 Gabezin en la plaza
22:00 Toro de fuego
23:00 Gabezin en la plaza
00:30 Pobredemi



OHARRAK

- 1 Udalak ez du zezenketetan gerta daitezkeen istripuen erantzukizunik hartzen.
- 2 Egitaraua borondatearen truke banatuko da. Udaletxean eta liburu-dendetan salgai izanen da banaketa eguna eta gero.
- 3 Zezenetan dabilzanek ihesbide errezagoa izan dezaten, hesien gainean inor ez esertzea eskatzen da.
- 4 16 urtez azpikoek debekatuta dute zezenketan ateratzea.
- 5 Arratsaldeko zezenen saioaren ondoren eta musika taldeak bere lana behar bezela egin dezan, oholta libre utzi.
- 6 Antolatzaileak, ez du bere gain hartuko zezensuzkoan gerta litezkeen erredura edo bestelakoan erantzukizuna.
- 7 Paella prestatze eta jatea:
 - Aurten ere ez da lehiaketarik izanen.
 - Norberak bere sua eta osagaiak eraman behar ditu sukaldatzeko.
 - Bertan bazkaltzeko aukera izanen denez, urtero bezela, mahai eta aulkiak bertan izanen dira erabilgarri.
- 8 Antolatzaileak, ez ditu egitarauko ekitaldi guztiak bere gain hartzen. Horiek jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.
- 9 Antolatzaileak, ez du bere gain hartuko umeentzako aparrak sor litzakeen alergien erantzukizuna.
- 10 Pestetan ere, zaborraren kudeaketa egokia eta arduratsua egitea eskatzen da.

PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

- Plazaola Aldizkariaren antolatzaileak (Aurrera Kirol Elkartek) ez du zertan ados egon argitaratzen diren idatzietako iritziekin.
- Lanak bidaltzen dituztenek beren izena jakinarazi beharko diote aldizkariaren antolatzaileari; sor litezkeen legezko arazoen erantzukizuna idazkien egileena izanen delarik.
- **Gure eskerrik zintzoenak aldizkari hau osatzeko beren lanekin lagundu duten idazle/egile guztiei, azalaren lehiaketan parte hartu dutenei eta baita ere argazkiak utzi dizkiguten Miel Mari Elozegi Luzeri, Juan Mari Zabaleta Sorori, Mallo Agirreri, Ainara Saralegiri eta Leire Karrerari. Bejondeizuela denei!**












"PESTEN BIHOTZA" **LIHER FERNANDEZ ZUBELDIA**-ren lana izan da
16 urtetik beherakoen artean irabazlea






ZORIONAK



16 urtetik beherako parte-hartzaileen lanak











LEITZA 2025

45. ZENBAKIA

Kaixo bazkide eta herritar:

2025eko San Tiburtzioak gainean ditugu, beste urte batez jai giroan eta lagun artean ongi pasatzeko. Denbora aurrera doan honetan, Aurrera K.E.ko zuzendaritzarentzako plazerra da beste bi urteetako konpromisoa hartu dugun honetan, hitz gutxi batzuk zuei zuzentzea.

Aurrera K.E.-n ez da lana eteten urtean zehar eta hori guztia ez litzateke posible izanen gurean ditugun azpitalde edo komisioek egiten duten lanik gabe. Muxutruk ari diren bolodres horiek Aurrerako dinamika errotzeaz gain, egunez egun Leitzeko kirol eta kulturaren lurra ereiten dute bazkide eta herritarrei aukera ezberdinak eskaintzeko. Eskerrik asko denei bihotzez.

Ildo honetatik, urtero komisioei aipamen berezi bat egiten diegu egiten duten ekarpenak direla eta. Aurtengoa Aurrerako Futbol Taldeari: ezin aipatu gabe utzi bi urte hauetan futbol zelaiaaren inguruan egin duten lanketan.

Ekarpenez ari garela, bazkide, tabernari, komertzio, enpresa eta nola ez, Leitzeko Udalak ematen duten babesa azpimarratu behar dugu. Egunen eguneko, euskaraz, berdintasunean, auzolanean eta elkartasunean, ekinbidean, elkarrekin jarraitzen dugu. Zeru ertzean ditugun asmoak ezingo lirateke hezur mamitu herritarrek eskainitako esku ezberdinen bultzadarik gabe.

Eta asmo horien artean Aurrera K.E.k beste hainbat ildoekin elkarlanean ari-tzen den bezala, lerro gutxi hauek baliatu nahi ditugu Palestinari eta gerraren industriarentzat diana diren herri horiei guztiei gure elkartasuna helarazteko.

Bukatzeko, leitzarrentzat kirola eta kultura balio ukaezinak dira. Aurrera K.E. tik elementu hauek sustatzen jarraituko dugularen konpromisoa duzue honakoa. Hortaz, pesta giroan ondo pasa, inorrek ez pasa eta kultura sustatu, hori baita pesta guztien helburua.

Gora San Tiburtzio!



ORTZADAR FOLKLORE TALDEKO KIDEEKIN

Dantza Atlasari buruz

Urte batzuk dira Ortzadar Folklore Elkartek Dantza Atlasa aurkeztu zuela, eta Mikel Lasarte eta Karlos Irujo, Dantza Atlasean buru belarri lan honetan aritu ziren kideetako bi ditugu. Leitzeko pestak gainean ditugun honetan, Atlasari eta gure dantzei buruz hitz egiteko elkartu gara.

Kaixo bikote, Zer da Ortzadar Folklore Elkartea?

Ortzadar, labur esanda, folklorea eta kultura tradizionala ikertu eta zabaltzen duen erakundea da. Artxi-boak eta herriz-herriko ikerketa-lanak egiten ditugu ikasketa-jardunaldiak antolatu, ikastaroak eta tailer-rrak eskaintzen ditugu, eta dantza eta musika-emanaldien bidez horren guztiaren esentzia zabaltzen saiatzen gara.

Dantza eta musika-errepertorioak eta Ortzadarrek erabiltzen duen janzkerak helburu horien espiritua islatzen dute; izan ere, horiek lantzeko edo ikasteko, beti saiatu izan gara jakintza horien jatorrizko lekuan eskuratzen, iturriekiko ahalik eta fidelitasun handienari eutsiz. Folklorearen elementuak ikasteko, zabaltzeko eta berreskuratzeko interes hori dantza eta musika-errepertorioa aurkezteko etengabeko berrikuntza-ekimenarekin osatzen dugu, koreografia eta eszenaratzea landuz eta uztartuz.

Eta Dantza Atlas?

Dantzatlasa duela 12 urte sortu genuen plataforma bat da. Bertan Nafarroako dantzen informazioa biltzen da: noiz egiten den, nola egiten den, zein izan den bilakara historikoa, nondik atera dugun informazioa... Honi lotuta bideoak, argazkiak, partiturak eta audioak. Dena libre eta edonork eskuratzeko moduan.

Proiektua 2008an hasi ginen ontzen, baina 2013 arte ez genuen Dantzatlasa garatu, hau da, ordurarte pentsatzen aritu ginen zer eta nola egin nahi genuen lan hau. Horretarako weborri bat egin genuen Labrit Multimedia enpresakoekin. Lehenbiziko une horietan ere, erabaki genuen Nafarroako Materia gabeko Ondarearen Artxiboarekin («Navarchivo») batera lan egitea, eta weborria bere artxiboan dago txertatua.



Zein da lan honen helburua?

Dantzatlasaren funtzioak askotarikoak dira. Hasiera batean guk Dantzaren Behatokia deitzen dugun proiektuaren barruan kokatzen da. Behatoki honen helburua dantzen garapena edo eboluzioa jasotzea litzateke. Baina ez da horretan geratzen eta agian, bere funtziorik nabarmenena dibulgazioa da. Hau da, Dantzatlasak denon eskura dagoen informazioa jasotzen du eta, nolabait esateko, informazio hori multimedia moduan denon eskura jartzen du. Edonork ikus dezake nola dantzatzen diren hor agertzen diren dantzak eta nahi izanez gero, baita ikasten saiatu ere. Horretarako doinuak eta irudiak daude. Eta musikarientzat, partiturak ere eskuragarri daude.

Dantzatlasen jadanik egiten ez diren dantzei buruzko informazioa ere jasotzen da. Guretzat garrantzitsua da hau ere agertzea, aukera ematen duelako dantza horiek noizbait berreskuratzeko.

Eremu aberatsa al da gurea dantzari dagokionez?

Bai, Nafarroa oso eremu aberatsa da. Agian aberatse-na Euskal Herrian. Horrek ez du esan nahi dantzarik ikusgarrienak direnik, baina dantza mota asko dago herrialde bakarrean. Eta gero eta dantza gehiago sortzen ari dira azken urteetan.

Osasun egoera onean al daude dantza hauek?

Tira, aurretik erabaki beharko litzateke «osasun ona» zer den. Adibidez, Erribera aldean Paloteadoekin egiten diren dantzak sekulako gorakada izan dute azken hamarkadetan. Paloteadoen gehienak XIX-XX mendeen artean galdu baziren, gaur egun ia-ia denak berreskuratuak izan dira. Dantza batzuk errekerperatu dira eta beste batzuk berriak sortu.

Gure iritziaren arabera, hainbat tokitan dantza halamoduz mantentzen da eta beste toki batzuetan berriaz, oso ongi zaintzen dute. Bi gauzek eragina izaten dute dantzaren garapenean eta ez dakigu onerako edo txarrerako izango den.

Leitza azaltzen al da dantza-Atlasean?

Bai, noski! Leitza Soka dantza, Ingurutxo eta Ezpata dantza egiten dira eta hirurak daude Atlasean.

Nolako ondarea dira Leitzako dantzak?

Oso ondare interesgarria eta garrantzitsua da. Alde batetik, leitzarrek bizirik mantendu dute Ingurutxo. Ingurutxoaren esparrua oso zabala zen eta Nafarroako mendialde ia osoa hartzen zuen. Are, hegoaldera ere zabaltzen zen, Lizarrako Larrain dantza lekuko. Musikan eta musika tresnetan egon diren moden aldaketekin, toki guztietan baztertu ziren ingurutxoak, Leitza izan ezik. Alde horretatik Leitzako Ingurutxo, dantza tradizioa behar adina balioesten ez zenean mantendu da. Bestaldetik ere, Ingurutxoarekin batera Soka dantza ere egiten da. Ingurutxo dantza soziala da eta azken hau errituala. Meritu handia da ondare hau mantendu izana!!

Azkenik, eta tradizioa zerbait bizia dela frogatzeko, Ezpata dantza dugu. Ezpata dantza aurreko mendearen hasieran sartu zen Leitzako folklorean eta lehen unetik bereganatu du Leitzako herriak. Orain, agian, indartsuen mantentzen den dantza da.

Egoera onean daudela esan daiteke?

Dantza tradizionalen osasun maila dantzaz arduratzen den taldearen arabera izaten da. Dantza tradizionalen biziraupenean sekulako garrantzia izan dute beren giblean egon diren erakundeek. Kasu batzuetan kofradiak edo anaidiak izan dira, beste batzuetan dantza taldeak edo elkarte kulturalak. Elkarrekin hauen osasunak zuzenean eragiten du dantzaren osasunean. Baina ez hori bakarrik: dantza behar bezala zaintzeko jendarteak interés berezia adierazi behar du.



Soka-dantza

Dantzek eta ohiturek aldaketak izan dituzte. Zein zailtasun sortzen dira aldaketak sartzearen eta ohiturari eustearen artean?

Kontuan izan behar dugu dantzek, aspalditik etorri arren, dantzatzen dituen gizartearen oniritzia izan behar dutela. Gizarteari ez badio deus ere esaten, honek baztertu egingo ditu. Edo, kasurik hoberenean, egokituko ditu hainbat berrikuntza sortuz. Noski, gizartea ez da inor. Pertsona konkretu batzuk sortzen dituzte egokitzapenak eta gainontzekoek onartu. Prozesua ez da erraza eta sortzaileek gainontzekoen nolabaiteko errekonozimendua izan behar dute. Geroago eztabaidak sortzen dira: beti daude tradizioa bere horretan mantentzen tematzen direnak eta edozein aldaketa kutsadura edo pekatutzat hartzen dutenak. Batzuetan nahiago dute ez dantzatzea berrikuntza onartzea baino. Holako muturreko jarrerak saihestu behar dira ahal den heinean. Baina noski, tradizioaren izenean ez da dena onartu behar.

Noiz dantzatzen zen garai batean eta noiz dantzatzen da gaur egun?

Gure aurreko gizartea gurea baino askoz dantzazaleagoa zen. Edozein egoera ona zen dantzatzeko: artaxuriketak, herriko festak, etab. Lanak bukatzen zirelarik langileak biltzen ziren eta dantzan eta kantuan aritzen ziren, musikariekin edo musikaririk gabe. Bestaldetik, Soka dantza bezalako dantzak, edo Ezpata dantza, dantza erritualak dira eta behar dute toki eta une berezi bat dantzatuak izateko. Horrela, ingurutxo bat edozein igandetan egin zitekeen; Soka dantza, aldiz, ez. Soka dantzan herria, edo herriaren zati bat, gainontzekoaren aurrean aurkeztzen da, herriaren isla da, bere hierarkiarekin. Herria dantzan, bai ikusleak, bai dantzariak.

Nolakoa da ingurutxoa? Aldaketak izan ditu?

Ingurutxoa dantza soziala da, hau da, herriaren parte diren guztiek parte har dezakete dantzan. Dantza esaten dugu, baina hobea litzateke dantza multzoa esatea: Inguru haundiak, inguru txikiak, belauntzikoak... Denborarekin, porrusalda eta jota ere itsatsi zaizkie eta orain ingurutxoaren parte dira. Seguruenik, dantzatzeko era ere aldatu izanen da. Dantzak, orokorrean, azkartu egin dira denborarekin.

Jantzietan ere aldaketak egon dira. Ingurutxoa erabat herrikoia zenean, hau da, elkarte bat bere atzean ez zegoenean, eguneko arroparekin dantzaten zen. Jai eguna bazen, berriz, jai egunekoarekin.

Zer aldatu den? Diagnostikoaren arabera da erantzuna. Zaila da kanpotik esatea baina oro har, gaur egun parte hartzaile erabat pasiboak bihurtu gara eta besteak nola dantzaten diren ikustera joaten gara. Aldaketa hoberena hauxe litzateke, jendea dantzatzera animatzea!



Ingurutxoa

Dantza Atlasa

Dantza Atlasak zer informazio duen ikusi nahi izan dugu, eta hauxe da ingurutxoko fitxa teknikoak: Leitzako ingurutxoa mantendu den ingurutxorik osatuena da eta hainbat dantzek osatzen dute. Soka dantza da egiten den lehendabiziko dantza. Bertan mutilek soilik, edota neskekin, belauntziko izeneko dantza egiten dute. Bigarren dantza sorta Ingurutxoa da berez. Sorta honetan erritmo eta koreografia ezberdineko dantzak egiten dira: inguru handiak eta inguru txikiak. Neska-mutilek bikoteka dantzaten dira korroan erlojuaren orratzen mugimenduaren kontrako norabidean. Bukatzeko, fandangoa, porrusalda eta biribilketa egiten dira. Dantza hau, batez ere, herriko festetan dantzaten da.

Azalpen histoikoari dagokionez, berriz, hauxe dio: Ingurutxoak oso esparru zabala hartzen zuen Nafarroan: Basaburuak, Larraun, Arakil, Ultzama... Baina 1936ko gerra bukatu zenerako desagerturik zegoen toki guztietan, Leitzan izan ezik. Egile batzuentzat bi dantza multzo ezberdinek osatzen dute ingurutxoa: soka dantza eta berez ingurutxoa dena. Aurreko mendearen 60ko hamarkadan berreskuratzen hasi ziren Larraungo ingurutxoaren kasuan, soka dantza ez da egiten, baina bertan egiten diren zortzikoak edo belauntzikoak mantendu dira ingurutxoaren dantzetan txertatuta.

Ingurutxoa dantza soziala zenez, edozein aitzakiarekin egin zitekeen. Gehien bat herriko festeetan dantzaten zen. Baina Leitzaren kasuan betidanik izan dira txistulariak eta hauek igandero egiten zuten musika eta dantza saioa. Duela gutxi arte, egiten zuten saio hori bukatzeko Ingurutxoa jotzen zuten.

Ezpatadantzari buruz, hauxe dio Dantza Atlasak:

Leitzako Ezpata dantza bere momentuan herriak bereganatutako Bizkaiko Ezpata dantzan du jatorria eta oinarria, egun erabat leitzartzat onartzen dena. Bizkaiko ezpata dantzan bezala, Leitzakoan hainbat dantza egiten dira: banaka zein taldetako dantzak, ezpata dantzak, makil dantzak eta bandera dantza egiten dira.

Azalpen historikoa:

1932an dantzatu zuten lehendabiziko aldiz EAJ-PNVren batzokiaren inaugurazioaren karrera. Urte horietan Ramón Olazararen egon zen apez Leitzan (Hilario Olazararen anaia). Olazararen nazionalista zen eta litekeena da ezpata dantzaren soinua berak irakastea eta Patxi Ripa iruindarrak dantzak. Leitzan egiten den ezpata dantzak Euzko Gaztedik bere garaian zabaldu zuen Durangaldeko ezpata dantza du oinarri. Dakigunez ez da ordudanik etenik izan (gerra urteak izan ezik).

Ezpata dantza beti frontoian dantzatu izan da. Hasierako denbora horietan frontisari ematen zioten bizkarra dantzariak. Gero, 60ko hamarkadan, hasi zen Baleztena etxeari begira eta udaletxeari bizkarra ematen dantzatzeko; azkenik, eta 1992-94tik aurrera, udaletxeari begira egiten ohi da.

Lehenengo urteetan izenik gabeko dantza talde batek egiten zuen eta Aurrera taldeko dantzariak gero. 2015etik aurrera dantzak neska-mutilek egiten dituzte bi talde misto sortuz.

Leitzako Ezpata Dantza bertako folklorean sartu baino lehen, izan ziren dantza berriak sartzeko bestelako saiakerak: 1914. urtean Gipuzkoako Dantzak irakatsi ziren Leitzan. Urte hartako argazki zahar batean, Ordiziako Jose-lontxo Pujana dantza maisu famatua agertzen zaigu, ondoan 16 dantzari txiki dituela, beren arkuekin. Txistulariak Tolosako Txistulari Bandako Leandro Zabala, J. Txintxilla eta Baleriano



Ezpatadantza



Mokoroo dira.

Tira, Dantza Atlasean bila ibilita hau eta askoz ere informazio gehiago aurkitu duzue, Ingurutxoa, Ezpatadantza eta beste dantza askori buruzkoa. Interesa duenak, altxor bat aurkituko hemen adibide pare bat:

<https://www.dantzatlas.navarchivo.com/eu/node/906>

<https://www.dantzatlas.navarchivo.com/eu/node/905>

Dantza eta folkloreaki buruzko lan bikaina, zalantzarik gabe!

GENOZIDIOA STOP!

Israelekiko harremanak eten!

Palestina bizi den egoera jasanezina da. Hau idatzi dugun unean, 55 637 pertsonak bizia galdu dute Gazan; baina, zoritxarrez, hilotzen kontaketak ez du etenik. Palestinar herriaren genozidioa burura eramaten ari da Israelgo estatua.

Euskal Herriak eta leitzarrok une eta modu ezberdinetan salatu dugu Palestinan gertatzen ari den genozidioa, Israel presionatu beharra dagoela sarraskiarekin amaitzeko eta palestinar herriaren eskubideak errespetatzeko.

Norabide honetan, Leitzako pestetan ere, Leitzako norabanako eta eragile ezberdinek, Gernika-Palestina Herri ekimenarekin elkarlanean, Palestinaren aldeko eta genozidioaren aurkako aldarria presente egotea dugu helburu.

Horretarako, hurrengo ekimenetan parte hartzeko gonbita lutzatzen dugu:

- Abuztuaren 9an, 19:00etan, Leitzako plazatik abiatuko den mobilizazioan parte hartzea.
- Leitzako pestetan zehar Palestinaren aldeko elkartasun zapia soinean eramatea. Horretarako, zapiak salgai jarriko dira abuztuaren 9ko mobilizazioan eta plazako txosnan.
- Ahal den neurrian, Mundubat GKE erakundearen bidez Palestinako eragile ezberdinei ekarpen ekonomikoa bideratzea (Laboral Kutxan: ES36 3035 0083 28 0830140037).



Ez da geldirik egoteko unea. Leitzako pestetan ere, Palestinako herriarekiko elkartasuna zabaltzen, Israelen inpunitatea salatzen eta Israelekiko harremanak etetea eskatzen, eta genozidioa amai dadila aldarrikatzen jarraituko dugu.

Palestinak bere eskubideen jabe izan behar duelako eta larritasun humanitarioaren aurrean elkartasuna ezinbestekoa delako.

**Leitzako pestetan ere...
GENOZIDIOA STOP!**

LEITZA-PALESTINA HERRI EKIMENA



ESPERANTZARA KONDENATUTA

Euskal herrian kakotx artean
bizi garenez bakean
barruak sarri nahasten zaizkit
hesteak lotuz katean...
Bertso sorta hau kokatu nahi dut
aukera dudan artean
denok dakigun baina ulertzen
ez dugun gerra batean

Filtrorik ezin zaie ipini
zenbait irudi usteli:
haurrak lurtean zerraldo eta
beraien bueltan lau euli
Hamaika herri suntsituta ta
berdin hainbeste fameli...
Bi oinak inork ez al dizkio
geratuko Israeli?

Ia ahazturik geneukan gerra
batean hamaika gudu
Edozer egin asmotan dira
hainbat israeldar judu
ta guk etxean bake etiko
baten bila dihardugu
Gerra irudiak jarri ezkerro
bolumena jaisten dugu

Hedabideetan zer gertatzen den
denok badakigu jada
aurten ere zer nolatan joan
den azkeneko bolada
Oroitarazi nahi zuten arren
ahazturan joan zen Nakba
noski, ahoa ixtea ere
suntsitzeko era bat da

Ta guk zer egin jakin ez eta
barrua lasaitzearren
zazpi euroko bandera batez
tapatzen gara azkarren
trapu zuri, beltz, berde ta gorriz
balkoi eta etxe-barren
Han gorria ta beltza bakarrik
sentitzen dituzten arren

Geratu zuten otorduz lepo
zeramaten kamioia
sartzen hainbeste lan ez dutenak
tankea eta kainoia
Hori da biak eduki nahia:
kontrola ta arrazoia.
Baina ezin da batera izan
diktadore ta heroia

Nahiz eta mundu guztiak daukan
diplomazia antsia
Gure gertuko Estatuena
ezin da izan ahantzia
batek dirua, besteak armak
eta Israel jantzia
tragediaren konplize dira
Espainia ta Frantzia

Nahiz ta arazo honen zentroan
ipini nahi duten Hamas
Aurpegi gorri ilehori bat
ari da besteak janaz
Israel bere altzoan hartu
ta hornitu nahi du armaz
Gizona dabil nahi duen dena
eginaz eta esanaz

Hor ari dira babestu nahian
Jerusalem ta Tel Aviv
batzuentzako ez dago zigor,
muga eta kartzelarik...
Esperantzara kondenatuak
gaudela zioen Garik
Baina batzutan horretarako
ere ez da aukerarik

Eta munduak beti egin du
honekiko ezaxola
Etxeak guztiz suntsitu eta
euren herria kaiola
Palestinarek bi lan gehiago
eman nahi zaizkie hola
biak batera lehortu behar
malkoak eta odola

Nahiz ta ez dudana dena aldatu
daitekenaren usterik
nola ez dugun bonba ta tiro
hotsik gabeko asterik
Hau ez da deusen irakaspen bat
edo ezeren eskerik
sorta hau ez da dakidanaren
kronika soil bat besterik

Gogorarazi nahi nuen bertan
gertatu den eraso
ustea daukat zerbaiten faltan
utzi dudala bertsoa
sentsazioa dut ezin dela
dena geratu jasoa
Baina agian ez da izango
bertsoaren arazoa

Doinua: Ama Birjina Erkudengoa

XABAT ILLARREGI MARZOL

Poesia URA



Basoaren lur hezeetan
sortutako ur gardena, berria
haur bat den bezala
bere sortzean
goroldioak eta orbelak
zure irria laztantzen
pago iluna
zure bizi berriaren lekuko
lur amak besarkatu zaitu
baina oraindik ez zara bide

Lur barrenean
sortzen zara ura
bidea egiñez bazoaz
erreka izatera
ilargiarekin jostatzen duzu
zilarrezkoa izatea
lasai egon, itsaso zabala
ez da bukaera
berriz lurrera itzuliko zara
berriz, erreka izanen zara



Zilarrezko erreka
eraman nazazu
zure ertzera
han gelditu nahi dut
gauaren zain
ilargiaren zain
ez ditut erreka
eta itsaso gehiago zeharkatuko
bakarrik egongo naiz
zure bide bazterrean
han, harriak gure sekretuak
ezagutzen dituzten tokian

Itsasoaren ur sakonetan
putzu handi
sakon ilunean
argiaren printzak bide
biziaren sustrai oinetara
uratik bizia
lur amari emana
ura, izadi guztien lehena
bizia beraren sormen
zure barne barnetik
ozen entzuten da
zure, gure taupada



Biziaren iturri zara ura
ur bizi, ur geldi
ur bide, ur dario
uraren joan etorria
ura zara lurra
hezetasuna baso goibelean
edonon iturria
arnasa eta taupada
uraren gorputzetan
zu ura, bizia bera zara

Goroldioa
bizia beraren
erakustun zaren horri
uraren eta lurraren
arteko kontuak
dakizkizun horri
harriak, arbolak
eta lurra berdez
jazten dituzun horri
gaur, zu aipamen
hezetasunean gorespen
ixilik bizi zaren horri



Banoa
berdeena den pagadian barrena
hosto bustiak ukitzen naute
adarretatik zintzilik malkoak
haizeak, ur freskoa dakarkit aurpegira
eta honek
burutazioak eta kezak uxatzen
laguntzen dit
lainoak zabaldu du bere maindirea
baina oraindik ez gara itsu
bere azpian
pagoak, pagoa nahi
zilar berdeenaren basoan

Ez da haizea
euriaren beldur
ez eta eguna
gau ilunarena
bakoitzak bere lekua du
bere denbora eta tenpora
bere arnasa eta pausoa
bere ekaitza eta langarra
bere eguzki eta bere izarra
bakoitza, bat da
bakoitza, bera bakarra

BEGOÑA ZABALETA ZABALETA

KONTU KONTARI

GORRITZUNEN GORDE ZEN MOTILLE

Gogoan dauket gerran ibili zen gizon batek esaten zuena: “Zuk txarkeririk haundiena pentsatu, zuk egin daitekeen gaiztakeririk haundiena pentsatu eta gerrak horiek denak baditu”. Irispobeak, barrengaiztoak eta ezinsofrituak zitalkeri guziak egiteko eta poltsak betetzeko gerra denbora aprobetxatzen dute.

Motil bat, ez dakit zein etxetakoa, begitan hartua zuten garai hartako agintariak beren politikarekin bat ez zetorrelako. Motil honek Gorritzunen zuen andregaia. Gorritzarango etxe honetan bai omen da bi pareten arteko zoko bat aterik ez duena eta bakarrik solairuko oholak kendu eta sartu daitekeena. Eta motil hori han gorde zen. Etsaiek ez zeuden lo eta pentsatu zuten andregaiek eman izanen ziola izkutatzeko lekua eta kapitana bere soldaduekin hara yoan zen. Etxe guzie txero-txero begiratu zuten eta ekulluko gorotzpille kapitanak sablez sastakatu zuen han gordeta egon zitekeelakoan. Baina ez zuten motille aurkitu. Eta ordun kapitanak erabaki zuen etxea erre egin behar zuela. Motillek bere gordelekutik denak entzuten zituen eta heriotza begien aurrean ikusi zuen. Bien bitartean, andregaiari begietako argia egin eta gaizkituta ohean sartu zen. Soldaduak bere ohearekin hartu eta atarira atera zuten. Eta atarian zegoen gurdia barrena sartu zuten erre zedin. Etxeko guziak negarrez deiadarka hari zirela ikusi eta azkenean kapitana urrikaldu eta etxea ez erretzeko agindua eman zuen. Hala salbatu zen motille.

Handik denboraren burutara, gauzak baretu zirenean, ezkondu behar zutela pentsatu zuten. Eta preobeak egiten ari zirela motille hil egin zen. Ez zuten suerte haundirik izan.

Gure amona Gorritzungo alaba zen eta hark kontatzen zuen pasadizo hau. Ez dakit ziur zein urtetakoa den histori hau baina XIX. mendekoa dela bai. Garai hartan karlisten eta beltzen artean hainbeste gerra eta ixkanbila izan baitzen.

KUTRILLOA

Harriak errutira botatzeko aparato bat zen kutrilloa. Bi soka ziren larru puska batekin elkartuak eta hor yartzen zen harrie. Soka batek zuen txoxtea esku batean sartu eta kontutzeko eta beste punteri beste eskua- rekin eusten zitzion indarra eman arte eta gero libre uzten zen eta ordun zitzu bizin ateratzen zen harrie. Umeak yostaketarako erabiltzen zuten kutrilloa. Eta artzaiek ere bai ardiak larre egokira larratzeko. Baina arriskutsua zen. Gizon bat harrie tiratzen hasi kutrilloarekin eta harrie begira etorri eta begie lehertu zion.

PALENKA ERAKUSTALDIA

Palenka-yokoa izaten zen palenka zeinek errutigora bota. Lehenago palenka-yoko asko izaten zen eta yendeak trabesean diru asko yokatzen zuen. Eta dirua bakarrik ez, azindak ere bai. Ikus dezagun zer dion Orixek Uitzin yokatu zuten palenka-yoko bati buruz:

*Batak urde ernari, besteak artantxu,
âl dunak âl duana, bero du jokatu.*

Berueteko Txortxik marka dizu urratu:

Artalde ta âria –laurogei bat buru–.

Honako histori hau orain dela hirurogeita zortzi edo hirurogeita hamar urteko kontue da: palenkari bat etorri zen Leitzera pestara eta erakustaldi bat egin nahi zuen. San Tiburtzio eguneko eguerdia zen eta kontsejuko balkobea yendez leher zegoen. Palenkari barriñoa urez bete eta palenka bustitzen ari zen esku- tatik irrixten aiseago ateratzeko. Plazaren erditik Etxe- txuri aldera bota nahi zuen palenka. Etxetxuri aldean zegoen yendea lekuarazi zuten iñork miñik har ez ze- zan. Hasi zen bueltaka palenka botatzeko eta palenkak eskutik ihes egin eta kontsejuko tellatupéan yo zuen. Eta eskerrak han yo zuen. Pixka bat beherago yo balu balkobean zeudenen kalik ederki berotuko zituen! Eta suertea izan zen lurrean inor ez harrapatzea. Palenkak norbait yo balu elbarritu edo hil zezaken.

ELISEO IZOZKI SALTZAILEA

Bizikletaren perrilleren gainean zuen esertalkie eta aurrean kutxa bat bi perrillen gainean. Kutxa hori dena izozkiz betea izaten zuen eta pedalei emanez ibiltzen zen izozkiak saltzen. Egunero trenez bialtzen zizkioten izozkiz betetako eltze haundi batzuk. Bazuen halako aparato ttiki bat eta han bi galleten artean yartzen zuen izozkia eta yendek harrapazka erosten zuen.

Eta ez zen izozki saltzalea bakarra, pillotarie ere bazen. Aisoko pestetako programetan azaltzen da beste pillotarien artean.

Eliseo Sanchiz Sanz Alikanteko Banyeres de Mariola herrian yayo zen 1904. urtean eta 1923an etorri zen Iruñera. Aurrena Chapitelako "El buen gusto" izozki dendan aritu zen lanean eta gero paseo Sarasateko "La Vital" izozki denda. Gero bere izozki denda ireki zuen Cuatro Vientos inguru hortan.

Hil baino urte bat lehenago Santiago Bidea egin zuen "Molinero" deitzen zion asto gainean. Iragakri bat yarri zuen asto gainean "El maná de Eliseo" eta bertan ageri ziren berak egiten zituen izozki, karamello eta gainerakoak.

Trenak harrapatuta hil zen 1966. urtean. Bere buroa trenari bota ziola zabaldu zen yolasa, baina ez omen zen egia. Iruñeko estaziora trena etortzen zenean bere produktoak saltzera yoaten zen eta trenbidea alden beste irautzen ari zela harrapatu zuen trenak.



Eliseo izozkik saltzen

PASTAIÑEN TXISTUE

Hameika soñu yotako txistue! Eta makinabat yende dantzatue Pastaiñek txistu horri ateratako soinuekin. Pastaiñ karrapen aritzen zen txistue yotzen igande eta jaietan eta beste herrietara ere yoaten zen. Bein Leitzeko dantzariekin Gernikara yoan zen eta han emakume batzuek galdetu zioten leitzarrei. "Nongoa duzue danbolin hori?". Eta Hoxakin Hojalateroan: "Hori, Pastaingoa". Eta emakumeek: "Non dago Pastain hori?". Eta Hoxakinek: "Azpikoerrotatik goraxeago".

Ordun (1920.urte ingurua) zinea hasi berria zen eta bazkalondoan yendea zinea gora eta beheara ari zen yolasean. Eta Pastaiñek galdetu zuen: "Zine hori kaferi nahastute hartzen al da?". Ateraldi hauek bere seme Joanek kontatzen zituen zerri-hiltzetakoan.



Pastaiñen txistue

Pastaiñ danboliñ yotzalle bikañe zen. Begira zer dion Orixek soka-dantzari buruz ari dela: "Gure inguruetan izan dan danboliñik jatorrena Leitza'ko Pastain izan da. Pontxo areago zitekeen ziztuan, baiñan arratzean oraingoetara erortzen zen. Ez det esaten zortziko hau 6/8'an idazten jarraitu bear dugunik, Iztueta'k eta Pastaiñ'ek eta bezala, baiñan aien patxaran jo dezatela, gure dantza aundiki au kaxkartu ez dedin. Ontan Pastaiñ'en eskolakoa da gure Sarasola au, baiñan esan dedanez, agurotu egiten da."

"Nik iru ikasle ezagutu ditut Pastain'ek: Ebaristo Elduain, Leitza berekoa; J. Antonio Arotzena Lizartzakoa, ta nire jaioterriko J. Iñazio Atxega. Oien patxara biurtzea nai nuke nik, naiz ziztua, naiz zaldabaia jotzen dela".

Eta Ebaristo Elduaini buruz hau dio Orixek: "Nor da orain, esaterako, Ebaristo Elduain bezain tuntunlari onik? Ongi gogoan daukat egon giñala iruindar bat eta ni, aren neurri berdintasunarekin arriturik. Metronomo bat ekarri ba'genu, etzait iduritzen arengandik pitsik ere aldegingo zunik. Bai ote zan Euskalerrian ez ezezen, lekura ere, zotza arek bezala zeatz eramanez zezakenik?"

ASTAITZ

Nik ere akanpatu nuen



Arrastoak marraztuko ditut,
orri txuritan,
orri gorritan.
Askatasun oihuaren arrastorik
gordinenak, ozenenak,
goxoenak, tinkoenak.
Hitzak,
banan-banan,
bihotzetik lumara irristatuko zaizkit,
injustiziaren labanak
ezingo dituztenak zarratatu.
Gorrotoaren haizeak sakabanatu
ezingo dituen
ele ta berba.
Hitzak oihu bilakatuko dira,
oihuak kantu,
kantuak Baztan bailarako
lahar guztiak
astinduko dituen ereserkia,
Aroztegiko auzia
oroimen txar batean geratu arte.

Olerkia:
GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

Ilustrazioa:
AINARA SARALEGI SAGASTIBELTZA

Ehuntzen...

Aspaldi etorri nintzen
zure leiho ondora,
zure leihoko zulotxora,
jadanik ez naiz gogoratzen noiz,
ez naiz oroitzen iada.

Aspaldian
zure lausorik gabeko irribarrea,
begirada pikarrea,
gandurik ez zuten hitzak
eta zure dantzaldiak
faltan botatzen ditut...


Nik hemen jarraitzen dut,
nire saretxoak ehuntzen
eta zuk?
ehuntzen ote dituzu zure ametsak,
oraindik?



Olerkia:
GARBIÑE SAGASTIBELTZA LIZARRAGA

Ilustrazioa:
ITZIAR FAGOAGA IRURTIA

Ekialde Hurbila **SUTAN**



Ekainaren 24a Iranen. Gerraren garaipena ospatzen.

Ekainaren 13an hasi eta 24an amaitu zena “12 Egunetako Gerra” bezala ezagutuko da aurrerantzean. Gauza harrigarri batzuk gertatu ziren bertan, pentsaezinak ordura arte. Nahiz eta lerro hauek idaztean bost egun bakarrik igaro diren bukatu zenetik, ondorio batzuk atera litezke.

Irango egitura politikoa aldatzeko apustua

Israelek AEBen laguntzaz Irani egin zion eraso koldar bezain gogorraren helburua bonba nuklearra lortzeko azpiegitura suntsitzeko asmoz egin zuela saldu ziguten komunikabideek. Berandu ibili dira, ba. Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu 30 urte inguru baitarama Iranek oso gutxi falta duela bonba nuklear hori lortzeko esaten. Bere bizi politiko guztia alegia, AEBetako lobby israeldarrak 1996an prestatu zion gidoiari zintzoki jarraituz.

Nahi izan balu, Iranek dagoeneko eskutan edukiko luke arma boteretsu hori. Baina bi arrazoi sendo ditu ez edukitzeko. Lehenik, beren lider nagusi Ali Jame-neik esanda, islamak debekatu egiten duelako. Bigarrenik, Iranek 1970 ezkerro TNP Nuklearrak Ez Ugal-tzeko Itunaren sinatzaileetako bat delako. Itun honen jarraipena egiten duen EANE Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundeak azken mende erdian jarrai-pen zehatza egin dio eta mundu osora zabaldua zuen Iran zintzo betetzen ari zela Ituna eta ez zela bonba nuklearra egiten ari. Hortaz, bai Israelek eta bai AE-Bek ziria sartu nahi izan digute denoi Irani egindako erasoak bonba nuklearrik ez izateko eginak izan zire-la esatean.

Benetako helburua 2001ean George W. Bush pre-sidente estatubatuarraren Estatu Idazkariorde Paul Wolfowitzek adierazi zuen. Gizon horrek, Ekialde Hurbilean Israelen nagusitasuna errazteko bidean, zazpi herrialdetako zerrenda osatu zuen, militarki erasotuak eta politikoki desorekatuak izateko: Irak, Siria, Libano, Afganistan, Somalia, Sudan eta Iran. Lehen sei etan helburuak beteta zituzten. Iran baka-rrik falta zen erasotua izateko. Aurten Libanon, Sirian

eta bereziki Gazan egindakoa eta gero, inolako kostu politikorik gabe dena, Israelek Irani ekiteko garaia zela ondorioztatu zuen. Wolfowitz honen plangintzan kokatu behar da ekainean gertatu den “12 Egunetako Gerra”-ren zergatia.

Ekintza militar azkar eta intentsitate handiko baten bitartez, Irango Aiatola Jamenei, buruzagi militarrek eta zientzialari nuklear gorenak hil egin nahi izan zituen Israelek. Aiatola ez zuten hil aurkitu ez zutelako. Baina zortzi buruzagi militar eta gutxienez dozena bat zientzialari nuklear akabatzea lortu zuten lehen erasoan. Donald Trump irandarrekin negoziatzeko gelditua zen ekainaren 15erako, baina 13an irandar guztiak ustekabez harrapatuak izan ziren. Mahaian negoziaketetan parte hartzen ari ziren guztiak hilik suertatu ziren. Eta beste mila inguru zibil irandar ere, ehunka hegazkin israeldarrek jaurtiketak bonben ondorioz.

Israelek eragindako hilketa eta bonbardaketa guztiek helburu politiko argi bat zuten: Aiatolaren egitura politiko osoa boteretik kendu eta beste erregimen mota bat ezarri. Agian 1941-1979 urteetan zehar Irango Xah -enperadore- izan zen Mohammad Reza Pahlaviren semea.

Irandarren batasuna

Gerraren hasiera latza izan zen irandarrentzat. Donald Trumpen amarruan erori ziren eta ustekabez, bat-batean, zientzialari nuklearren taldea eta armada bururik gabe geratu ziren ordu gutxiren buruan. Baina Israel-AEB bikoak kalkuluak oker eginda zituen. Iranek erasoari aurre egiteko duen gaitasuna gutxietsi egin zuten eta Iranen erantzuna neutralizatze duen gaitasuna gehiegi balioetsi. Hasieran arrakasta izan bazuten ere, operazioa ez zitzaien nahi bezain emankorra suertatu eta Iran gai izan zen aurreikusi baino askoz modu sendagoan erantzuteko. Egunez egunera kolpe handiagoak jasoz joan zen Israel. Goi mailako hainbat militarrek onartu zuten Tel Avivek zuen itxura bakarrik Gazan zutela ikusia. Itzaltze mediatikoa ezarri behar izan zuen Israelek jasaten ari zen benetako kalteak ezkutatzeko.

Iran kontraerasoa modu proportzionalean egiten saiatu zen eta Israelgo instalazioei zuzendu zizkien erasoak, bere instalazioek jasotako kalteen truke. Aspaldikoa den Irango taktika honek Israel bonbardaketak geldiaraztea bilatzen zuen. Hasieratik Iranek adierazia zuen israeldarrek erasoak eteten bazituzten, beraiek ere geldiaraziko zituztela kontraerasoak. Iranen helburu militarra Israel geldiaraztea izan zen eta lortu egin zuen.

Mendebaldeko hedabideen arabera, Irango herritarrak matxinatzeko eta bere gobernua boteretik kentzeko zorian zeuden, bonbardaketa gehixeago luzatzen bazen. Hau fantasia hutsa zen. Operazioa irandar guztiek gaitzetsi zuten, baita erregimenaren aurkakoez ere, inork ez baitu Gazan eta Libanon berriki ikusi dituzten antzeko bonbardaketarik nahi. Erasoak kontrako efektua lortu zuen eta herritarrek beren gobernu eta instituzioekin bat egin zuten.

Israeldarren eta AEBen akatsetako bat izan zen pentsatzea goi agintari militarrei eta programa nuklearretan lan egiten duten zientzialariei eraso eginez, armadak desertatu eta zientzialari guztiak lasterka aterako zirela eta jarraian jendea gobernuaren aurka altxako zela. Ez zen horrela izan.

Israel eta AEBen porrota

Irlandik jaurtitako misilek aireko defentsak zeharkatu eta Israelera iristen jarraitu zuten egunero. “Burdinazko Kupula” ez zen erasoak geldiarazteko gai izan eta bistakoa zen Iran gai zela nahi zuen edozein helbururi eraso egiteko, Mossad-en egoitza barne. Horrek guztiak etsipena eragin zuen Israelen aldean. Argi ikus zitekeen, Gazaren genozidioa hasi zenetik, Israel lehen aldiz gogotik sufritzen ari zela eta ez zegoela inolako seinale positiborik israeldarren eta estatubatuarren aldetik Iranen gaitasun misilistikoa neutralizatze. Misilak agortzen ari zitzaizkion Israeli eta horrek arazo estrategiko eta zaurgarritasun handiak zekarzkie.

Iranen aldean, berriz, jasaten zituzten kalteak gero eta txikiagoak ziren. Gune nuklearrak ez ziren ia kalteak izan. Eta herritarrak egunero uholdeka ateratzen ziren kalera, gobernuari babesa ematera. Gerra gero eta desorekatuago zegoen eta Israel porrot handia pairatzeko zorian.

Israelen aldeko lobby yankiak aurrera jarraitu nahi zuen, baina D.Trump eta bere MAGA (Make America Great Again) mugimenduak ez. Iran ere prest zegoen gerrari amaiera emateko, baldin eta Israel gelditzen bazen. Eta ustekabea gertatu zen. Hegazkin estatubatuarrek Irango gune nuklearren gainean milaka kilometro bonbak jaurti eta minutu gutxira, D.Trumpek txio bat ipini zuen bere sare sozialean esanez “Orain bakearen garaia da” eta lerro hauek idatzi bitartean ongi betetzen ari den su-etena iragarri zuen. Horretarako, publikoki kargu hartu behar izan zion Benjamin Netanyahu, sekula ikusi ez den zerbait eginez.

Esan behar da su-etena lortzeko Iranek bidea erraztu ziola D.Trumpi, Qatarren base militar yan-

kiari eraso egin behar ziola alde zurretik jakinaren gainean jarri zuelako. Dirudienez, D.Trumpek aurrez Irani iragarri zizkion geroago egin behar zion erasoaren xehetasunak, material guztiak bertatik ateratzeko denbora emanaz. Donald Trumpek presio izugarriak ditu sionisten eta neokontserbadore globalista gerrazaleen aldetik eta bide berezi bat aurkitu behar izan zuen gerra amaitzeko.

Inork ez daki D.Trumpen buruan zer egosten ari den une bakoitzean. Gaur zuria dena bihar beltza izan daiteke berarentzat. Horregatik zaila da interpretatzen hiru gune nuklearretan agindu zituen bonbardaketen arrazoiak. Zabaldu den bertsio batek dio Israelek, hain handia zenez hartzen ari zen jipoia, prest zegoela bomba nuklearrak erabiltzeko Iranen aurka, gerraren norantza aldatzea lortzen ez bazuen. Bertsio honen arabera, D.Trumpek aurre hartu nahi izan zion Israeli. Izan ere, bonbardaketa horien bidez Iranen gune nuklear guztiak suntsituta gelditu zirela ziurtatzean, Israel bomba nuklearra erabiltzeko aitzakiarik gabe geratu baitzen.

Nazioarteko zuzenbidea galtzaile

Estrategikoki, Aiatolaren eta bere egitura politikoa-ren aldaketa ez lortu izana Israel-AEB bikoarentzat porrot izugarritzat hartu behar da. Iranentzat, berriz, gerra hau oso proba gogorra izan zen eta bertatik garraile ateratzea lortu zuen. Aurrera begira, hala ere, badirudi hau ez dela izanen AEB-Israel eta Iranen arteko gatazka militarren azken atala.

NBE Nazio Batuen Erakundea eta bere inguruan osatutako Nazioarteko Zuzenbidea jota geratu dira. Mendebaldeari ez baitio axola han edo hemen erre-gimen aldaketaren bat erabakitzen duenean edo bere borondatea beste batzuei inposatu nahi dienean. Beste hainbeste esan dezakegu TNP Nuklearrak Ez Ugaltzeko Itunaz. Aurrerantzean nekez hartuko du serio Itun hau inork.

Israelek eta AEBek, arma nuklearrak dituzten bi estatuk, arma nuklearrik gabeko estatu bati eraso egin izanak TNP Nuklearrak ez Ugaltzeko Ituna amiltzea ekarri du. Bere burua bakezale sutsutzat duen hainbat jende ezagunek aitortu du: *“Segurtasun egokia eta benetako disuasioa nahi baduzu, arma nuklearrak beharrezkoak direlakoan gaude orain”*. Iranek orain arte arma nuklearrik ez garatzeko politika izan du, baina analistek aldatuko duela diote. Beharrezkoa dirudi, lehengo politikak eraman zituelako AEB eta Israel Iran bonbardatzera.

Guda oraingoz amaitu da. Etenaldi bat egonen da alde guztiek behar dutelako. Israelek eta Iranek euren armategiak bete egin behar dituzte eta Donald Trumpi gerra ororen aurkako diren bere bazkideak biltzen dituen MAGA apurtzen ari baitzaio. Baina denbora kontua baino ez da Israel eta AEB berriz ere antzeko erasoren bat egiten saiatzea, Iran suntsitzeko asmo osoa baitute.

Oso garbi geratu den beste faktorea izan da Iran oso txarra dela ezkutuko operazioen aurka egiterakoan eta Iranen barruan lo dauden zelula israeldarrak desegiterakoan. Errusiarekin eta Txinarekin koordinazio estuagoa bilatuko beharko du ezinbestean.



“12 Egunetako Gerra” Tel Aviven, Iranen misil bat bertan erori eta gero.

Guda ez da amaitu

AEBen sistema gudazaleak, konplexu militar industrialaren eta Israelgo lobbyaren laguntzaz, gerrarako bultzada etengabea sortzen du. Europarrak bide beretik doaz. Etorkizunak zer ekarriko digun ez dakigu baina pentsa dezagun, Ukrainako eta Irango bi porroten ondoren, Txinarekin proba egiteko gogorik ez zaiela geratuko.

NERE-KAYOLA
2025-06-28



ETXEBIZITZA HUTSAK ETA ALOKAIRUA

Kaixo, leitzar.

Herriko festak iritsi diren honetan etxean gutxi ibiliko garen arren, beti da garai ona etxebizitzaren aferari buruz hitz egin eta problematika hau mahaiaren gainean jartzeko. Legegintzaldi honen hasieran hainbat lan-ildo zehaztu genituen eta hori egiteak ez leukake zentzurik ondoren horretan buru-belarri jarriko ez bagina.

Etxebizitzaren inguruko gaia bolo-bolo dabil azken urteetan. Arazo hau ez da gure herrian soilik gertatzen den gauza bat, orokorturik dagoen afera da etxebizitzak denontzat eskuragarri egon ezina. Gaur egun bizi den edonoren bizi proiektuaren parte da etxebizitza bat eduki eta baldintza duinetan bizi ahal izatea eta eskubide bat da edo izan behar luke hau modu jasangarrian gauzatu ahal izateak. Azken urte luzeetan ikusi dugunez, ordea, hori ez da hala. Ez dago edonoren esku etxe bat erosi ahal izatea, eta arazo horri alternatibak bilatzea da gaur egungo gizartearen erronka nagusienetako bat. Alokairua sustatzea da alternatiba horietako bat, etxebizitza hutsei ateak ireki eta emantzipatzeko edo etxebizitza batean bizitzeko nahi eta beharrari irtenbidea emanez.

Iturri ezberdinetatik jasotako datuek diotenez, Leitzan dagoen etxebizitza hutsen kopurua handia da. Etxebizitza horiek zergatik dauden hutsik jakitea ez da erraza, hainbat arrazoi egongo dira tartean. Jakina den bakarra etxebizitza horiei aterabide bat emanez gero, herriaren mesedetan izango dela da. Etxebizitza hutsak alokairuan jartzeak herriaren garapena bultzatzen du, Leitzan bizi nahi duten leitzarrei aukera ematen baitie bertan bizitzeko, bizi ahal izateko kanpora joan beharrik gabe. Hemen ere beharrezkoa da bertan bizi nahi duenari aukerak eskaintzea, bestela, herri txiki askotan gertatzen den despopulatzea gertatuko da Leitzan ere. Etxejabeei ere mesede egiten die urrats hau emateak, hauek mantentzeko modurik onena bertan bizitza egitea baita. Hau modu eskuragarri batean egitean datza gakoa, noski, prezioen espekulazioak ez bailuke egoera okerragotu baino egingo.

Esan bezala, Leitzako Udalak gai honetan urratsak eman nahi ditu eta horietako bat da alokairua sustatzea. Maiatzean aurkezpen bat egin genuen Herri Aretoan NASUVINSA elkartearekin batera. Alokairu-poltsa bat sortu dute Nafarroan alokairua modu seguruan sustatzeko. Maizterrari prezio eskuragarri bat eskaintzen zaio eta etxejabeei segurtasun material eta ekonomikoa bermatzen die. Honen inguruko informazioa edonork aurki dezake 828 42 06 00 telefonora deituz, bolsaalquiler@nasuvinsa.es postara idatziz edota Nasuvinsa.es orrian sartuz.

Denok egiten dugu Leitzan herri bizi eta bizigarri hau, eta segi dezagun hortan!



GAZAKO NEGAR-HAIZEA (II) edo ERANTZUN BEHARRA

laz hementxe utzi nituen, orduan eta nire ahalmenaren arabera, egoerak eskatzen zituzten erantzun beharreko letrak. Aurten idazteko asmorik ez nuen, baina, batetik egoera ez berdina, baizik eta gogorragoa denez, areagotu egin dela ikusita berriro nire buruak eskatu dit argazki berdinen gainean aurten ere zenbait letra uztea. Ahaztu ez dezagun, nahiz eta gu pestetan hasiko garen, idazten ari naizen une honetan, egunetik egunera

jasangaitzagoa egiten ari den egoeran. Handik eta hemendik era guztietako salaketa txiki hauek kaleratu behar ditugu, sortarazi behar ditugu. Letren umiltasuna onartuta, zer esan, zertaz kexa, zer eskatu baino zer exijitu badagoela ziur naiz. Genozidioari bukaera eman behar zaiola ikusten dut, ikusten dugu mundu honetako gehienok. Bestalde, ez dakit norena, baina Mafaldak botatzen zituen pentsamentuen antzera, beste komiki baten pertsonaien arteko elkarrizketa laburra irakurri nuen eta egoera honetarako egokia iruditu zitzaidan.

-Zer moduz maitea? Zer duzu? Triste somatzen zaitut.-galdetu dio batek bere lagunari.

-Gaizki nago -erantzun dio lagunak, "munduak mina eragiten dit"...

Zeinen egia handia: batetik eta bestetik "munduak" min egiten dit. Mundua nola doan ikusita ez doa ongi, "mundua" ez daramagu bide ohetik...

Eta ohiko eta esaera topikoetan oinarrituta; guk gure bizimoduaz zertaz kexatzeko arrazobe handirik ez dugu, baina zertaz kexa bada. Beti.

Aurten ere urrun dauden Lurralde horietatik ez zaigu jada haize berorik iristen; kiskalgarria den airea baizik.

Jada, inork gutxik ukatzen du Genozidioaren kontaketa latz eta beldurgarriaren aurrean,



jendarteko heriotza “bizia”,

kulturaren lurperatzea,

ohiko egunerokotasunaren desagertzea,

minaren hotsa, negar malkoen indargabetzea,

ezintasunaren nagusitasuna,

eta beste zenbait eta hainbat adjektibo krudel gehitu daitezkeen

amaigabeko zerrenda honetan.

Dena den, beste mundutar askori ohituraren politikak jada ez digu balio.

Ezintasuna nagusitzen joan den heinean,

egun, aldarrikapena handitzen ari da,

indartzen ari da,

gure ahotan ezinbestez agertzen da;

munduak sortzen duen mina gainditu behar dugulako,

guztiok hobeto eta modu juxtuan bizi gaitezen.

laz nioen moduan: Negar eginen nuke eta negar egiten dut,

baina horrela gelditzea aski ez dela jakinik,

gure malkoak indarra eta elkartasuna bihurtuz,

ibaitik itsasora joan daitezela,

beraien lurretan zabal daitezen,

benetan sufritzen dutenak,

banakako horiek guztiak

banakako bakoitzak eta banakako guztiek

umeen irriaren antzera,


isurtzen duten esperantza jaso dezaten....

Gerra eten! Gerrarik ez!-oihukatu nahi dut.

Oihukatu nahi dugu

Dudarik ez dut, dudarik ez dugu.

Mikel Illarregi



NOLA JOKATU ERASOEN AURREAN

INTENSITATE BAXUKOAK

Eraso bat
identifikatu duzu

Erasotuak laguntza
behar du?

EZ

Ez insistitu

**Baliabideak
eskaini**

(Informazio txartelak)

Ondoren...

**Arreta telefonora
deitu/idatzi**

Erasoa erregistratzeko:
zer, non, noiz...

INTENSITATE ALTUKOAK

|
Deitu
112
edo

**Arreta telefonoa
621 160 038**

BAI

1. Egiten ari zarena utzi

2. Entzun

Ez jarri zalantzan esandakoa

3. Laguntza eta baliabideak eskaini

Informazio txartelak

4. Arreta telefonora deitu

**Arreta telefonoa:
621 160 038**


**EMAGINEN ESKUTIK 24h-ko
TELEFONOSKO ARRETA ZERBITZUA
PESTA GUZTIETAN ZEHA**

Abuztuaren 2an (Repartoa) 20:00etatik 08:00etara
Abuztuaren 9ko 20:00etatik 16eko 08:00etara



**Leitze leku seguru bat
izatea denon ardura da!**

ERASOEN
ALIRKAKO
MAHAIA

ONGI PASATU LEITZAKO PESTAK!



k
be



**ESKERRIK ASKO
LEITZAN KONSUMITZEAGATIK!!**



Comercios
de Navarra
Nafarroako
dendak

**NAFARROAKO GOBERNUAK DIRUZ
LAGUNDUTAKO JARDUKETA**

Adi Akademia 680273544
Ainart Ileapaindegia 948510197
Aitziber Bergara Masajista 646568753
Allianz 948510490 657603435
Amaya Arraindegia 948510590
Anikote Leitzza 948510719-623266582
Antek Entremendu Pertsonala 671372662
Ariztela 948610611
Arzallus Harategia 948510377
Astitz Libur. 948510262-638012084
Belarra Belardenda 948510192
Bi Pauso 948513611-680187853
Bixigarri Fruteria 677345496
Edr Gunea 669695167
Erbiti Farmazia 948610636
Esther A. Farmazia 948510032
Ane Fisioetxea 948510730
Fruituak Ze Goxo 948610612
Garbi Drogeria 948510173-626823104
Gaztelu Iturgintza 948510086
Hernandorena 948510055-650255863
Inaxio Perurena Kiromasajea 649302307
Izaskun estetika Zentroa 638306110
Leitzza Garajea 948510466
Leitzza Kirolak 948610976
Lirain 676737856
Maimur Liburudenda 948510146
Mokadutxo Gastrodenda 657774641
Occident Aseguruak 948610685
Perurena Harategia 948510164
301K 620810803
Txokosfera 679699533
Kamperbide 669707916
Zortziko 948510720-655740245



LABORAL
kutxa

miara
ilearaindegia

Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta

pesta onak pasa!

Kale Nagusia, 1 Behea
20492 Berastegi

tel. 943 683 697



LEIMEN

ERA GUZTIETAKO ELEKTRIZITATE LANAK

JAI ZORIONTSUAK DENOI!

LEITZA ☎ 628 725 396 (Argoitz)
MENDILLORRI ☎ 628 725 397 (David)



LEITZA

Hernandorena Saizar, Jon Ander
646 020 596
Lizarraga Lazcano, Julen
616 491 126

Reformas Vicente

Maxi Vicente

**Ongi pasa
pesta!**

606307810
maxivcente1@hotmail.com
C/Amazabal 17-2ºA
Leitza

Gosariak, ogia, pastelak, pastak, tartak...



Pesta onak pasa!



**FONTANERÍA
DANI
ITURGINTZA**

ITURGINTZA GASA BEROKUNTZA

672 18 31 99

iturgintzadani@gmail.com

LEITZA

ONGI PASA PESTAK!

**GURATZ-MENDI
ELKARTEA**

Ongi pasa pesta!



Landa Behekoa, 4 · LEITZA

**ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.**

iturgintza · kalefazioa · gasa-gasoila
komuneko osagarriak · altzariak eta manparak

☎ 647 525 516 / 689 701 557
Bide-Ondo etxea · ARESO · Elgoien, 10 bajua LEITZA



**PERITZA
TABERNA
PESTA ONAK PASA!!**



AISLAN-LEITZA S.L.

poliuretanozko babes eta injekziozko isolaketa

☎ 618 915 943
Santa Luzia pas., 4 B behea · Buztintxuri · IRUÑA

Leitzako **gasolindegia**

RAFAEL MUGICAREN ALARGUNA

☎ 948 510 057

erosle supermerkatua

Gora San Tiburtzioak!



☎ 948 510 007 / 948 610 657 · LEITZA

Arritxenea

APARTAMENTU
RURALA



607 655 061
678 477 528

Elbarren, 16
LEITZA

PESTA ONAK PASA!

www.arrantxenea.com

Peluquería Eguzki Ileapandegia

☎ 628460603

Lidia Bildarraz
C/Elbarren 34,1A
Leitza 31880



✉ liidiabildarraz@gmail.com

MAPFRE LEITZA

Gerardo Arrupea Plaza

ongi pasa pestak!

☎ 948 510 499 · garrupea@mapfre.com



BEATRIZENEA

taberna · jatetxea

menua · otartekoak · kaxuelitak · pintxoak

PESTA ONAK IGARO!

☎ 948 510 991 · Mikel Deuna, 2 · LEITZA

MENDIGORRI ELKARTEA

pesta onak igaro!

Patxi Arrazola · Leitza

LB

landa-berri

DAIKE

obrak · etxebizitzak · erreformak · aurrekontuak · proiektuak

☎ 688 911 229 / daike@hotmail.com

pesta onak izan



kide

Aholkularitza



zerbitzu eta
lana euskaraz

ongi pasa
pestak!

LEITZA: Landa Ind, 18-1. pisua · T. 948 510 990

DONOSTIA: Tolosa hiribidea, 5-2 · T. 943 420 348



info@kide.eus · izaskun@kide.eus · www.kide.eus

Pintura lanak
orokorrean

MELO
pintura lanak

☎ 609 873 178 · LEITZA



Done Mikel, 1
☎ 948 610 909



JEIKI ABESBATZA

☎ 606 393 842

jeiki.leitza@gmail.com

f jeiki abesbatza

@ jeiki_abesbatza

Gora Santiburtzioak



BULDAIN
inmobiliaria

FESTA EDER HAUETAN
ZUEN NAHIAK BETE
DITZAZUEN OPA DIZUET

<http://buldain.blogspot.com>

☎ 948 510 534 / 649 476 615 · LEITZA

Javier Razkin
ASEGURUAK

Ongi pasa pestak!

☎ 948 510 338 / 674 745 563
Obispo Uharte, 8 behea · LEITZA

ARIZTIMUÑO ANAIK
ERAIKUNTZAK

Lan orokorrak eta berrikuntzak

ONGI PASA PESTAK!

☎ 948 510 202 / 948 510 374 · LEITZA

ORAIN ELKARTEA

Jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei

LEITZA

Gaztañaga
taberna

OTARTEKOAK · PINTXO BEROAK · KAXUELAK

☎ 948 610 708

ongi pasa pestak!

Dabid Barriola **TAXIa**
9 PLAZA



Tel. 679 71 51 69 · LEITZA
E-mail: dabidtaxia@gmail.com

LEITZALARREA S.L.
aroztegi metalikoa

☎ 948 510 598 / 669 368 991
Landa industrialdea, 20 · LEITZA



ORDUTEGIA

astelehenetik larunbatera
09:00-21:00 irekita

☎ 696 703 638



Landa poligonoa • Leitza

DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA



Eluserder Industrialdea
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO
(Nafarroa)



☎ 948 610 888 / 630 048 770 • Fax: 948 610 863 • Eluserder industrialdea, 1 • Areso (Nafarroa)



bilagunleitza@hotmail.es

Tel./Fax: 948 610 985 • Iñurrista Industrialdea / P2 • LEITZA

Arantxa ILEAPAINDEGIA

GORA
SAN TIBURTZIOAK!



☎ 948 610 931 • Huarte Gotzaina, 8



ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.

BASOGINTZA ETA
EGURRAREN GARRAIOA

Landa industrialdea, PI-PII
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tlf: 948 51 02 14
info@zubillagasaralegui.es



Nutrizio orokorra • Kirol nutrizioa • Elakadura hezkuntza •
Intolerantzia eta alergiak
LEITZA / IRUÑEA

☎ 689 381 992 (Ibarr Zabaleta)
izate.nutricion@gmail.com
izatenutri.com

ONGI PASA PESTAK!!

tantada
iturgintza



Imanol Echeverria 680 255 718
tantadaiturgintza@gmail.com

AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORRA
AEROTERMIA
EGUZKI PLAKAK
LURREKO SUAK

EGURREZKO GALDARAK
PELETTEKO GALDARAK ETA ESTUFAK
BIOMASA
ZORU BERO-EMAILEA
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Kornieta
elkartea

Ongi pasa
San Tiburtzioak!

LEITZA



Pesta onak
pasa!

Tel. 948 513 600
Landa industrialdea, 13
31880 LEITZA (Nafarroa)



Asador Jatebrea



Galartza III

31879 **BARAIBAR** (Nafarroa)



Pesta zoriontsuak opa dizkizue!

Tel. 948 504 456 / 948 504 387
asador@galartza.com
www.asador.galartza.com

CARLOS
SAGASTIBELTZA
VILLANUEVA

ARKITEKTU TEKNIKOA
ARQUITECTO TÉCNICO



Landa Ind. - Landa eraikina Tekn.
LEITZA
948 610 684 | 629 611 912
sagastibeltza@coaatnavarra.org



TALLERES

Ireber S.L.

ONGI PASA PESTAK!

MANTENIMENDU PREDIKTIBOA
INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843



ARANTXA
taxi zerbitzua



660794326



arantfaxaxia@gmail.com

Ezinduentzat egokitua
9 Eserleku

- | **Etxebizitza berriak**
Edificaciones nuevas
- | **Eraikinak zaharberritzea**
Rehabilitación de edificios
- | **Zurezko solairu eta teilatuetan espezializatua**
Especializados en suelos y tejados de madera
- | **Diru-laguntza eskaerak bideratzeko aholkularitza**
Asesoramiento en tramitación de ayudas económicas
- | **Energia aurrezteko fatxadak**
Fachadas para ahorro energético
- | **Igogailuak jartzea**
Instalación de ascensores
- | **Konpromisorik gabeko aurrekontuak**
Presupuestos sin compromiso



PERURENA HARATEGIA

1974



ongi pasa
pestak!

Pintxo eta ogitarteko
aukera zabala

☎ 677 721 688
Uharte Gotzaina 2, LEITZA

Atsedeen Gozo
GOZOTEGIA



Goxokiak, opilak, hot dog-ak, hamburgesak,
bokatak, patatak, edariak...

Ondo pasa
SAN TIBURTZIOAK!!

☎ 722108621



Saralegi

T A L O A K

Bertakoa, naturala, goxoa!



T. **610 378 543** Arro baserria - Leitza **saralegitaloak.eus**

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu

LANDA HOSTALA

HOSTAL RURAL

jatetxea

restaurante



PESTA EDERRAK PASA!!!!

688640834

EREGI

Herri Lan eta Zerbitzuak · Obras y servicios

Landa Industrialdea, 2 · LEITZA

info@eregisl.com

Landa industrialdea, 2 · LEITZA

info@eregisl.com

PESTA ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE



Leitzako Udalak

PESTA ZORIONTSUAK

OPA DIZKIZUE

leitzarrei, bisitariei eta gurekin
egon ezin ahal izanen duzuen guztiei.

PESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2025eko AURREKONTUA

PLAZAKO MUSIKA	36.991,50 €
BURUTIK	2.420,00 €
DJ XAIBOR	1.265,00 €
ITZAL	2.420,00 €
PURO RELAJO	9.680,00 €
JANUS LESTER	10.000,00 €
ZOPILOTES	8.000,00 €
GABEZIN	3.206,50 €
BESTELAKO MUSIKA	15.835,80 €
INCANSABLES	10.800,00 €
EZPELUR	1.100,00 €
ELEKTROTXORONGO	1.815,00 €
BERTSOLARIAK	2.120,80 €
KIROLAK	9.963,00 €
HERRI KIROLAK	4.600,00 €
ADOS-EN PILOTA PARTIDUA	1.000,00 €
ABUZTUAREN 12-KO JAIALDIA	363,00 €
BAIKO-REN PILOTA PARTIDUA	4.000,00 €
JOKOAK	6.394,85 €
UR TXIRRISTA	2.764,85 €
SUZKO ZEZENA	1.800,00 €
HAUR JOKOAK	830,00 €
GOXOKIAK ETA APARRA	1.000,00 €
ZEZENAK	22.785,00 €
ARKITEKTURA ZIURTAGIRIA	200,00 €
ASIER ARRIBILAGA GANADUTEGIA	10.890,00 €
GIZARTE SEGURANTZA	320,00 €
HONDARRA BILTZEKO MAKINA	800,00 €
HONDARRA ETA PORTEA	1.600,00 €
MAPFRE	1.500,00 €
MEDIKUA ETA ANBULANTZIA	6.725,00 €
UKUILUAREN ALOKAIRUA	750,00 €
OTORDUAK	10.900,00 €
HERRI AFARIA	4.900,00 €
OTORDUAK	6.000,00 €
PROGRAMA	3.434,70 €
LIBURUA	3.284,70 €
LEHIAKETAREN SARIA	150,00 €
BESTELAKOAK	11.036,11 €
OROIGARRIAK	249,26 €
GARBIKETA, ARGI INDARRA,ETAB	3.000,00 €
SGAE	2.370,60 €
EKIPOA	4.3560 €
ARALAR MUSIKA ESKOLAKO TEKNIKARIA	1.060,25 €
GUZTIRA	117.340,96 €

Jaietan ere LGTBI+

Festek sozializatzeko era garrantzitsua dira, aisialdirako eta dibertitzeko garaia; nahitaezkoa da balioan jartzea eta aniztasun sexuala eta generokoa ereitea berdintasunezko gizarte bat sortzeko.

Pertsona guztiak berezi eta errepikaezinak gara.

Aniztasunak aberasten gaitu!

www.igualdadnavarra.es

Subvenciona / Lagunduta:



KATTALINGUNE LGTBI+
Servicio Público del Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernuako Zerbitzu Publikoa

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gehien erakartzen nauena?

Ezer ziurtzat ez jotzea.



LEITZAN

Gozatu, partekatu eta errespetatu



#PrebentzioNeurriakErabili
#PresiorikEtaGezurrikEz
#EtiketarikGabekoMaitasuna



**Leitzako
Udala**

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

